

GASTEIZ'KO ABADE - IKASTEGIA

URREZKO EZTEGUAK

Aurten beteten dira 50 urte Gasteiz'ko Abade-Ikastegia sortu zala eta, ori dala-ta, aldizkari onen beste orrialde baten diñogunez, Barandiaran eta Lekuona'ri omenaldia egin jake eta Deduzko Irakasle izendatu ditue. Ez da besterik egin, zor aundia ordaindu baiño.

Berrogei ta amar urte oneian izan ditu «Seminario» onek egun aundiak eta pozezkoak, baiña ez gitxiago negargarri ta samiñak. Or agertzen da, era batera edo bestera, Euskarriaren zori bardiña izan dauala.

Guda-aurrean ospe aundia lortu eban eta Erriaren alde lan ederra egin eban, baiña orduan be ostopoak ugari izan. Barandiaran eta Lekuona izan ziran eragille, euskal gizabidearen eta euskerearen arloetan.

Guda-ostea, zapalkuntzaren aldia izan zan eta lan aundia egiteko erea ta kemena izan arren, bideak goitik ezarriak izaten ziran, Gotzaiña bera be goitik ezarria zan lez.

* * *

GOTZAIÑAK

Guda-ostean lenengo Gotzaiña edo Gotzain-ordea Laurizika izan zan: Aundi-zalea, España'ri laguntzea Jainkoari laguntzea zala esaten ebana, bere aldian edo aurreragotik 550 abade erbestean eukazana, abadeak politikan ez dauala sartu bear esan eta esan ibiltan zana, bera belarrietaraiño sartuta egonik. Gasteiz'ko gotzaiña, Mujika, erbesteratuta egoan.

Baiña abade-Ikastegi au aundi egin eban Lauzirika'k eta alegin guztiak egin zituan aunditasun ori lortzen, batez Liburutegi-arloan. Ikasleak pozik artzen genduan Gotzaiña eta txalo ugariak eta beroak jotzen geuntsazan.

Gero Ballester Gotzaiña etorri zan, ona baiña guztiz bildurtia, euskal-arazoa iñondik be ulertzen ez ebana, Madrid'eko agintarien lagun ona.

Beronen aldian, Ikastegi au aundiegi zalako, Gasteiz'ko goterkia iru zati egitea lortu eben Madrid'eko agintariak.

Eta Gazteiz'ko Seminarioa erdi-utsik eta itun geratu zan.

Ba-dirudi gaur berbizkunde pozgarri bat datorrela etxe onentzat.

* * *

ERRIA AIZTUTA

Ikastegiak ondo, oso ondo irakasten eban, eta ez irakatsi beste barik, ezi be bai.

Baiña uts aundi bat eukan ezi-bide onak: Erria aitzu eban, aitatu be ez zan egiten. Eta ez uste izan irakasleen pekatua zanik, ararioen zapalkuntza zan eta giro aretan ez zan beste biderik ikusten, ixillik egon eta al dan neurrian norberarena egin baiño. Eta egite au urri geratu zan.

Orduko irakasleak gaur be lotsa barik agertzen dira gure artean, zuzendari izan zan Ugalde jauna ez ikusteak pizka bat arritu ba-gaitu be. Beronek azkenengo urte bietan, geure artean euskerea ikasteko baimena emon euskun, obeto esateko, guk ekiteko eta berak ez-ikusi egingo ebalá esan euskun. 50'garren urtea zan.

Urrin geratu da Barandiaran eta Lekuona'ren aldi txalogarria.

* * *

ELEIZ-GIROA

Ikastegiak sartu euskun eleiz-giroa, orduko eran, gaur asko aldatu-bearra izan da, naikoa egokia zan. Eta sendietan bizi-bizi asmatzen zan erri-giroagaz ondo alkartzen zan eta barruan, geienok euskaldun eta fededun urten gintzan. Bearrezko liburu batzuk be, isilpean eltzen jakuzan, esaterako Agirre'ren «De Gernika a Nueva Tork» edo Mujika Gotzaiñaren «Imperativos de mi conciencia» edo «Mit Benender Sorge», Pio XI'aren idazkia, au be aldi baten España'n debekatua. Alemania'ko NAZI'en aurkakoa zan.

* * *

Gaur okerrak zuzentzen lan eta lan eginbearra dago.